



HIRI-MANTENIMENDUKO LANEN ZERRENDA

AHALBIDE programan gaixotasun psikikoa duten pertsonen hiri-mantenimenduko lanak egin zituzten. Hona hemen egindako lan guztien zerrenda:

LORAZAINTZA

- Arkale inguruan, haritz gazteen kimatze lanak.
- Elizalde Eskolan lore aldaketak eta belar hazia ereitea.
- Anbulatorio inguruan bi lorontzi bete (herriko konposta erabili zen ongarrizeko).
- Ugaldetxoko lorontziak aldatu.
- Igerileku ondoko heskaia garbitu.
- Txara basoko zaborra bildu.
- Egiederreko estazio megalitikoaren inguruan hesola eta alanbre zaharrak kendu eta bildu.
- Olaberriko (Ergoien) mantenu lanak (belarra...).
- Otraizko bordan eta inguruan lanak: belarra moztu.

MANTENUA ETA HIRIGINTZA

- Urkabe azpiko ur biltegi txikiaren margoketa.
- Auztegiko etxearen egokitzapena (hormak, sabaiak eta leihoak margotu, teilatuan ubidea jarri, ingurua txukundu...).
- Auztegiko garbitegi zaharra hustu eta garbitu.
- Arditurriko argindar kaxetaren margoketa.
- Arditurrin berreskuratutako burdinezko tutuak garbitu.
- Portuberri eta Arditurri inguruko karobien mantenu lanak.
- Altzibarko zubiaren margoketa bukatu.
- Portuberriko karobira jaisteko eskilarak egin.
- Aritxulegiko bordako lanak: ur hodia lurpean sartu, aska konpondu, borda margotu...



- Iturriozko lokalean konponketak eta margoketa.
- Iturriozko plazako eserlekuak margotu.
- Arraguako karobi zaharra garbitu. Zaborra bildu.
- Bidebitarte (Arragua) baserri ondoko bidearen garbiketa.
- Okelarre ur biltegiaren margoketa.
- Otraizko bordan eta inguruan lanak: borda garbitu, teilatua konpondu, iturria egin, eta mahaiak bernizatu.
- Herriko informazio panelak lixatu eta bernizatu: Elizalden, Karrikan, Iturriotzen eta Altzibarren.
- Udaletxe aurreko eserlekuak lixatu eta bernizatu.
- Udaletxeko burdin hesiak lixatu eta margotu.
- Gazte Izanak erretiratuen egoitzako leihoak margotu.
- Egiederreko (Ugaldetxo) informazio panela lixatu eta bernizatu.
- Olaberria ola zaharrera jaisteko eskilarak egin.
- Olaberrian (Ergoien) drainatze-tutu porotsua ezarri.
- Olaberriko (Ergoien) mantenu lanak (horma...).
- Ugaldetxoko eskola zaharretako konponketa eta margotze lanak.
- Iradi baserria eta Juansendo bidea (Ugaldetxo) lotzen dituen estrata txukundu.
- Bidegorriko eserlekuak lixatu eta bi bernizaldi eman (Ertzainen koartetik hasi eta Arditurriraino, 52 guztira).
- Elorrieta kaleko (Elizalde) eserlekuak konpondu eta margotu.

BESTELAKOAK

- Egurrezko pieza txikien taila.
- Egurrezko pieza handien taila.
- San Jose Obrero elizaren (Erreterria) goiko pisuan arropa bildu eta lekua txukundu.



AHALBIDE

Hiri-mantenimenduko lanak

- Herriko karobi, burdinola eta toki desberdinetako izenak tailatu.
- Sukaldaritzako ikastaroa.
- Pasaiako Udalak Trintxerpen duen pabilioian (Ciriza Etxea) materiala lekualdatu eta garbitu.
- Oarsoaldea Garapen Agentziaren Lezoko pabilioia garbitu eta antolatu.

Iturria: Oiartzungo Udala